



**2024KO MAIATZAREN 14KO
EZOHICO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lau ko maiatzaren hamalauan, arratsaldeko seiak eta laurdenetan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- 2024KO EKAINAREN 9KO EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAJETAKO PARTAIDEEN AUKERAKETA EGITEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekin zaio, 2024ko ekainaren 9an egingo diren Europako Parlamenturako hauteskundeak direla eta, hauteskunde mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, Instituto Nacional de Estadística erakundearen IDA-Celec plataformaren bidez egin da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartu dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako datuetatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jaso direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

